

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Behin betiko onestea 2 zenbakiko udal zerga ordenantzaren, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenaren, aldaketa**

Udalbatzak, 2020ko irailaren 24ko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion 2 zenbakiko udal zerga ordenantzaren, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenaren, aldaketari (2020/11/S062 espediente), eta 2020ko urriaren 5eko ALHAOn (113. zk.) eman zen argitara. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabakia behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan. Horrela, bada, argitaratu egiten da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen testu osoa hitzez hitz:

#### **“UDALAREN 2. ZERGA ORDENANTZA, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA**

##### I. XEDAPEN OROKORRAK

##### **1. artikulua**

Udalak ordenantza honen arabera eskatuko du ondasun higiezinaren gaineko zerga, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zerga honi buruzko Foru Arauan ezarritakoari jarraituz. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

##### **2. artikulua**

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

##### II. ZERGA EGITATEA

##### **3. artikulua**

1. Landa, hiri eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko honako eskubide hauen titular izatea da zerga gaia:

- a) Ondasun higiezinaren edo ondasun higiezin horiei atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio kontzesioa.
- b) Azalera eskubide erreala.
- c) Gozamen eskubide erreala.
- d) Jabetza eskubidea.

2. Aurreko apartatuan azaldutako zerga egitateetako bat, ezarritako hurrenkerari jarraituz, gertatuz gero, ondasun higiezinaren ez da egongo zergaren kargapean beste modalitateetan.

3. Zerga honi dagokionez, ordenantza honetako 4. artikuluan zerrendatutakoak izango dira landa eta hiri ondasun higiezin.

4. Ondasun higiezin bera hainbat udalerritan badago, zerga honek eragiten duen ondorioetarako Amurrioko udalerrirena izango da, udalerrri honetan hartzen duen azalergatik.

#### 4. artikulua

Honako hauek dira hiri ondasun higiezinak:

1. Hiri lurzorua. Honako hau jotzen da hiri lurzorutzat:

a) Hirigintza planeamenduaren arabera lurzoru urbanizatu edo baliokide direnak.

b) Lur urbanizagarriak, edo lurralde antolamendurako eta hirigintzarako tresnen arabera urbanizatuko diren edo urbaniza daitezkeen lurrak, betiere mugatutako sektore edo esparruetan badaude; eta mota horretako gainerako lurzoru guztiak, haien garapenerako zehaztapenak ezartzen dituen hirigintzako tresna onartzen den unetik aurrera.

c) Nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutako lurrak, zatikapenak lurrak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

2. Hiri eraikuntzak, holakotzat ondoko hauek hartuta:

a) Eraikinak, edozein direlarik, egiteko erabili den materiala, hartzen duten tokia eta lurzoru mota eta ematen zaion erabilera, nahiz eta eraikitzeke eragatik guztiz eramangarriak izan, eta nahiz eta hartzen duten lurra ez izan eraikuntzaren jabearena; halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritza eta industria instalazioak, adibidez, dikeak, tankeak eta zamatze tokiak.

b) Urbanizazio eta hobekuntza obrak, lur berdinketak esaterako, eta espazio irekiak erabiltzeko egiten diren obrak. Hor sartzen dira azoka barrutiak; aire zabaleko deposituak; kirola egiteko zelai edo instalazioak; kaiak; aparkalekuak eta eraikuntzen ondoko espazioak.

c) Hurrengo artikuluan landa izaerako eraikuntza gisa berariaz kalifikatuta ez dauden eraikuntzak.

3. Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak dauden lurzoruak ez dira hiri lurrak.

#### 5. artikulua

Honako hauek hartuko dira landa ondasun higiezintzat:

1. Aurreko artikuluko 1. zenbakian xedatu denaren arabera hirikoak ez diren lurrak.

2. b) Landa eraikuntzak, hau da, nekazaritzarako eraikin eta instalazioak, landa lurretan badaude eta ezinbestekoak badira nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenen garapenerako.

Zerga honen ondorioetarako ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo baso ustiapenean erabilitako estalgune edo estalpe txikiak, horiek eraikitzeke erabilitako materialak iraupen laburrekoak eta arinak izaki, erabilera hauetarako baino balio ez badute: lurra hobeto aprobeztatzeko, laboreak babesteko, eraikinik ez dagoen eremuetan abereak aldi baterako gordetzeko, edo jarduerarekin lotutako tresnak eta lanabesak gordetzeko. Era berean, zerga honetarako ez dira eraikuntzat joko landa lurretan egindako obra eta hobekuntzak, lurren balioaren zati bereiztezin izango baitira.

#### 5 bis. artikulua

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak berariazko erabilera duen multzoa osatzen dute (lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio eta hobekuntza obrak). Multzoak, berez, horiek guztiak bateratzen dituzenez, eta beti batera eutsi funtzionatzeko, ondasun higiezin bakartzat jotzen da katastroaren ondorioetarako.

Ezaugarri berezietako ondasun higiezintzat hartuko dira, aurreko apartatuaren arabera, talde hauetan daudenak:

a) Energia elektrikoa eta gasa ekoitzi eta petrolioa birfintzekoak, eta zentral nuklearrak.

b) Presak, ur jauziak eta urtegiak, horien hondoa barne, ureztatzeko bakarrik erabiltzen direnak izan ezik.

c) Autobideak, errepideak eta bidesaridun tunelak.

d) Merkataritzarako aireportuak eta portuak.

## III. SALBUESPENAK

**6. artikulua**

Ondasun hauek ez daude zergaren kargapean:

1. Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Lurralde Historikoaren eta toki erakundeen jabetzako ondasunak, defentsari, herritarren segurtasunari eta hezkuntza zerbitzuei zein presondegi zerbitzuei zuzenean lotuta badaude. Unibertsitate publikoen jabetzakoak direnak, hezkuntza zerbitzuei zuzenean atxikita badaude. Halaber, errepideak, bideak eta lurreko gainerako bideak, aprobetxamendu publikokoak eta doakoak badira.

2. Kuadrillen, udalen, ermandadeen eta administrazio batzarren jabetza direnak, erabilera eta zerbitzu publikoei lotuta badaude. Aurrean xedatutakoa ez da aplikatuko ondasunak edo hauek atxikita dauden zerbitzu publikoa kontzesio administratibo batean badaude edo zeharkako beste modu baten bitartez kudeatzen badira, kasu honetan izan ezik: titularra irabazteko asmorik gabeko elkarte bada eta aipatutako erakundearekin lankidetzat jarduerak egiten baditu, hain zuzen ere haren organo eskudunak udal interesekotzat jo dituen lankidetzat jarduerak.

Orobat, ez zaie zerga hau ezarriko baso eta gainerako ondasun higieziari, horien gainean herri aprobetxamenduren bat dagoenean, ez eta herri basoei ere.

3. Hazkunde geldoa duten espezieez populatutako mendiak, publikoak zein pribatuak.

Salbuespen hori hazkunde moteleko zehazkeriari dagokie, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren izendegia kontuan hartuta, horien aprobetxamendu nagusia egurra bada, eta espezie horiekin landatutako basoaren zatian bakarrik, baldin eta zehazkiaren dentsitatea espezieari berez dagokiona bada.

Orobat, aurreko apartatuan aipatzen ez diren mendietako batzuk ere salbuespenean sartzen dira, hain zuzen ere, korporazioek, erakundeek eta partikularrek basoberritutakoak, eta Baso Administrazioak onartutako antolamendu proiektuen edo plan teknikoen arabera birsortzen ari diren zehazkiak dauden eremuak ere bai. Apartatu honetan aurreikusitako salbuespenak hamabost urteko iraupena izango du, eskaera egin eta hurrengo zergalditik kontatuta.

4. Eliza Katolikoaren ondasunak, 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz Estatu espainiarrak eta Vatikanokoak sinatutako akordioan araututakoaren arabera.

5. Legeak onartutako elkarte konfesional ez katolikoak, Espainiako Konstituzioaren 16.3 artikulua aipatzen dituen lankidetzat harremanen arabera.

6. Gurutze Gorriaren ondasunak eta arauz zehazten diren antzeko beste entitate batzuenak.

7. Atzerriko gobernuen ondasunak, ordezkariak diplomatikoak, kontsuletxeak edo erakunde ofizialak jartzeko erabiliz gero, elkarrekotasuna izateko baldintzapean edo indarrean dauden Nazioarteko Hitzarmenen arabera.

8. Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenak direla-eta salbuespena aplika dakiekeen erakunde edo entitateen ondasunak.

9. Trenbideek okupatutako lurak eta lur horietan dauden eraikinak, hauek geltokitarako, biltokitarako edo trenbideok ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako erabiltzen badira.

Ondorioz, ez dira salbuetsiko zerga ordaindu behar izatetik ez ostalaritza, ikuskizun, merkataritza eta aisialdi establezimenduak, ez enplegatuen etxebizitzatarako erabiltzen diren etxeak, ez eta zuzendaritzaren bulegoak edo industria instalazioak ere.

10. Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2.2.a) artikuluan ezartzen duen arabera monumentu izendapena duten higiezinak. Salbuespen hau inbentariatutako zein kalifikatutako kultura ondasunei aplikatuko zaie, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, salbuetsita daude monumentu multzo baten osagai diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikuluko 2. apartatuko b) letran xedatzen duenaren arabera. Salbuespen hori soilik aplikatuko zaie higiezin kalifikatu zein inbentariatuei, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte eta babes bereziko araubidean badaude.

Orobat, salbuetsita daude Espainiako ondare historikoko ondasun higiezinak; hain zuzen ere, ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, Espainiako ondare historikoenak, finkatu zuen ondare historikoko ondasun higiezinak.

11. Kuota likidoa hiru euro baino gehiagokoa ez duten hiri eta landa ondasunak. Landa higiezinak direla eta, subjektu pasiboak Amurrioko udalerrian dituen landa ondasun guztien kuota bateratua hartuko da aintzat.

12. Erabat nahiz hein batean hezkuntza itunaren araubidean dauden ikastetxeek irakaskuntzarako erabiltzen dituzten ondasun higiezinak, hain zuzen ere irakaskuntza hitzarturako erabiltzen den azalera.

#### IV. SUBJEKTU PASIBOA

##### 7. artikulua

1. Pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. apartatuan zehazten diren entitateak, eta testamentu ahalmen baten edo usufriktu ahaltsu baten faltan gauzatzeke dauden jaraunspenak dira subjektu pasiboak, zergadunak diren neurrian, zerga egitatea den eskubide baten titularrak izanez gero.

Ezaugarri bereziko higiezin beraren gainean kontzesiodun bat baino gehiago badago, zergadunaren ordezkaria izango da kanon handiena ordaindu behar duena.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoa gorabehera, subjektu pasiboak zerga besteri jasanarazteko ahalmena izango du, eskubide komuneko arauari jarraituz. Herri erabilerakoak edo ondare ondasunak kontraprestazioz erabiltzen dituztenei jasanaraziko die Amurrioko Udalak zergaren kuota likido osoa, nahiz eta subjektu pasibo izan ez.

Era berean, zergadunaren ordezkariak gainerako kontzesiodunei jasanarazi ahal izango die dagokien kuota zatia, bakoitzak ordaindu beharreko kanonaren arabera.

#### V. ZERGA OINARRIA

##### 8. artikulua

1. Zerga honen oinarria ondasun higiezinaren balioaren arabera izango da.

2. Zerga oinarria zehazteko, ondasun higiezinaren katastro balioa hartuko da oinarritzat, zeina ondasun higiezinaren merkatu balioa erreferentziazat hartuta finkatuko den, eta ezin izango da, inolaz ere, merkatu balio hori gainditu.

##### 9. artikulua

1. Hiri ondasun higiezinaren katastro balioa lurzoruaren eta eraikinen balioak osatuko dute.

2. Lurzoruaren balioa kalkulatzeko, bertan eragina izango duten hirigintza egoerak hartuko dira kontuan.

3. Eraikinen balioa kalkulatzeko, hirigintzako eta eraikuntzako baldintzak kontuan hartzeaz gain, haien izaera historiko-artistikoa, erabilera edo xedea, kalitatea eta antzinatasuna hartuko dira kontuan, bai eta eragina izan dezakeen beste edozein faktore ere.

##### 10. artikulua

1. Landa ondasunen katastro balioa lurzoruaren eta eraikinen balioak osatuko dute.

2. Landa lurren balioa honelaxe kalkulatu da: arautegian ezarritako den interesa zein lurren errenta erreal edo potentzialak kapitalizatuta, produktiorako, labore desberdinetarako edo aprobetxamendurako lurra duen gaitasunaren arabera eta lur horien katastro ezaugarriekin bat etorritik.

Errentak kalkulatzeko, aintzat hartu ahal izango dira ikerketaz lortutako datuak, zona edo eskualde bakoitzeko nekazaritza ezaugarri homogeenak dituzten errentamendu edo apartzerien gainekoak.

Gainera, idatz zati honen ondorioetarako kontuan hartuko dira landa lurretan egindako hobekuntzak, haien balioaren osagai banaezinak direnak, eta, behar den kasuetan, ekoizten hasi arte pasatutako urteen kopurua ere bai. Basogintzarako erabiltzen diren landa lurren balioa kalkulatzeko kontuan hartu behar dira zuhaitz berrien adina, zuhaitzen egoera eta aprobetxamenduaren zikloa.

Nolanahi ere, aprobetxamendu handiagoa bultzatuko duten ohiko produkzioen bitartekoen erabilera hartuko da kontuan; ez, ordea, aparteko bitartekoen aplikazioa.

Hala ere, ustiategiaren izaera edo udalerrriaren ezaugarriak direla eta lurren benetako errentak edo errenta potentzialak zenbatekoak diren jakiterik ez badago, ondasunen katastro balioa kalkulatzeko (hobekuntza iraunkorrek eta baso berriak barne) nekazaritzako faktore teknikoak eta ekonomikoak eta lurra ukitzen dituzten gainerako inguruabarrak hartu ahal izango dira kontuan.

3. Landa eraikuntzen balioa aurreko artikuluan 3. apartatuan jasotako arauak aplikatuz kalkulatu da, eraikuntzen izaerak hori ahalbidetzen duen neurrian.

#### **11. artikulua**

Aipatutako katastro balioak finkatzen dira higiezin katastroetan dauden datuak oinarri hartuta. Katastro balio horiek berrikusi, aldarazi edo eguneratu ahal izango dira, kasuan kasukoa, eta horretarako 13., 14. edo 15. artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritakoa aplikatu beharko da.

#### **12. artikulua**

Landa eta hiri ondasun higiezin katastroak dira landa eta hiri ondasun higiezin datu eta deskripzioen multzoa: azalera, kokalekua, mugak, laboreak edo aprobetxamenduak, kalitateak, balioak eta gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak. Datu horiek lurren jabetza ezagutarazten dute, eta haien alderdi eta aplikazioak definitzen dituzte.

#### **13. artikulua**

1. Katastro balioak 9. eta 10. artikuluetan araututako balorazio irizpideen arabera finkatuko dira.

2. Horretarako, lurzoruaren izaera aldatu bada, hiri lurzoria mugatuko da alde aurretik, indarrean dauden hirigintza xedapenei lotuta.

3. Aurreko apartatuan aipatutako lurzoruaren mugaketa lanak egin ostean, hala badagokio, kasuan kasuko balio txostenak egingo dira, eta bertan katastro balioak finkatzeko beharrezkoak diren irizpideak, balorazio taulak eta gainerako elementuak jasoko dira.

4. Hiri lurzoruaren mugaketa onartu ondoren, jendaurrean jarriko da 15 egunez, interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten. Testua udal bulegoetan egongo da ikusgai, eta ALHAOn eta lurralde horretan zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuko da.

5. Onartutako balio txostenak ALHAOn argitaratuko dira, eta udalaren ediktuen bidez, txosten horietatik eratorritako katastro balioek ondorioa zein urtetan izan behar duten, haren aurreko urteko lehenengo seihilekoan.

6. Txostenak argitaratu eta gero, txosten horietatik eratorritako katastro balioak subjektu pasibo bakoitzari jakinarazi beharko zaizkio, ondorioa zein urtetan izan behar duten, haren aurreko urtea amaitu baino lehen.

7. Hala finkatutako katastro balioak zortzi urtean behin berrikusi beharko dira.

**14. artikulua**

1. Katastro balioak Foru Aldundiak aldatuko ditu, bere kabuz edo udalak eskatuta, hirigintza planeamenduak edo beste egoera batzuek erakusten dutenean desberdintasun nabarmenak daudela katastroko balioen eta udalerrri osoan edo bertako guneren batean edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezin merkatu balioen artean.

2. Aldaketa horrek, ezinbestean, balio txosten berriak lantzea eskatuko du, aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baina hiri lurzoruaren mugaketa berria egin beharrik gabe.

3. Txostenak landu ostean, aurreko artikuluan araututako izapideak eta prozedurak jarraituko dira.

**15. artikulua**

Aipatzen ari garen katastro balioak Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrei buruzko foru arauetan finkatzen diren koefizienteen arabera eguneratu ahal izango dira.

## VI. ZERGA KUOTA

**16. artikulua**

1. Zerga oinarriari karga tasa aplikatuta lortuko da zerga honi dagokion kuota osoa.

Kuota likidoa kalkulatzeko lege ezarritako hobarien zenbatekoa kendu behar da kuota osotik.

2. Karga tasa da 1. eranskinean agertzen dena.

3. Katastro balioak elkarren segidan finkatu, berrikusi eta aldatzen badira, eta ez aldi berean, zerga honen karga tasa ezberdina izan daiteke katastro balio berriak dituzten ondasunak diren ala ez.

## VII. HOBARIAK

**17. artikulua**

1. Urbanizatzeko, eraikuntzako eta higiezin sustapeneko enpresen jardueraren xedea diren ondasun higiezinak, obra berrikoek nahiz haren pareko diren birgaitzekoek, ehuneko 50eko hobaria izango dute, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi aurretik, eta haren ondasun higiezin ondasunetan azaltzen ez badira.

Udal administrazioak hartuko ditu, alderdi batek eskatuta, aipatutako hobari horiei dagozkien erabakiak.

2. Obrak hasi ondorengo zergalditik obrak amaitu ondorengo zergaldira arte aplikatuko da hobari hori, baldin eta bien arteko epe horretan urbanizazio edo eraikuntza obrak egiten badira.

3. Nolanahi ere, aurreko apartatuan aipatzen den gozamen epea ezin da hiru urte baino luzeagoa izan, urbanizazio eta eraikuntza obrak abiarazten direnetik zenbatzen hasita.

4. Udalerrian dauden eta baldintza hauek aldi berean betetzen dituzten hiri ondasun higiezin zergaren kuotaren ehuneko 50eko hobaria izango dute:

a) Etxebizitzatzat jotzea, Arabako Foru Aldundiko Katastro Zerbitzuak ezarritakoarekin bat etorritik.

b) Aloria, Artomaña, Baranbio, Delika, Larrinbe, Lekamaña, Lezama, Saratxo eta Tertangako administrazio batzarretako lurretan egotea.

c) Higiezin horretan egotea errolatuta subjektu pasiboa, zerga sortzerakoan; edo, zergaren subjektu pasiboa hil arren, bere alargunaren edo oinordekoen ohiko etxebizitza izatea (udalaren biztanle eroldaren datu basean ageri behar da). Salbuespen hori berdin aplikatuko da zergaren subjektu pasiboak ondoko hauek badira: Amurrioko udalerriko administrazio batzarren bat, Gasteizko Gotzaindegia edo udalerrian edo Amurrioko Udalean dauden parroketatik edozein.

5. Interesdunek eskatu egin beharko dute aurreko idatz zatian araututako hobaria, eta eskaera egiten den urtean sartuko da indarrean.

6. Kuotaren ehuneko 75eko hobaria izango dute azalera eskubidearen erregimenean okupatzen diren gizarte etxebizitzek; hau da, etxebizitza publikoen araubide juridikoari eta etxebizitza eta lurzoru gaitan finantza neurriak ezartzeari buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 28. artikuluan arautzen den erregimenean okupatzen diren etxebizitzek. Hobari hori 15 urtean aplikatu ahal izango da.

7. Babes ofizialeko etxebizitzek eta gizarte etxebizitzek ehuneko 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan, behin betiko kalifikazioa izan ondorengo hiru zergalditan, hiru urtez babes ofizialeko etxebizitzek eta 10 urtez gizarte etxebizitzek. Hobari hori interesdunak eskatu behar du, hobariaren epea bukatu aurretik edozein momentutan; hobariak eskaera egin eta hurrengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak.

8. Zerga honen kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute babestutako naturguneetan dauden eta baso landaketa edo saila duten landa lurrek.

9. Familia anitzeko titular diren subjektu pasiboek hobaria izango dute zergaren kuotan, bizitegitarako higiezinak badituzte, eta familiako kideak bertan bizi badira benetan. Familia unitatearen diru sarrerak eta kideak zenbat diren, halaxe aplikatuko dira 2. eranskinetako taulak, eta horren emaitza izango da hobariaren ehunekoa. Hobari hori, bestalde, subjektu pasiboek hala eskatuta emango da, eta eskatu eta hurrengo ekitaldian sartuko da indarrean, eta indarrean iraungo du bost urteko aldi berriztagarrian; bestela, ondorengoren batek 21 urte bete arte igarotzeke dagoen epean, baldin eta epe hori bost urte baino gutxiago bada. Eskaera aurkeztu aurreko ekitaldian familiak izandako diru sarrerak izango dira kontuan hobariaren ehunekoa kalkulatzeko, eta ez da berriz ere kalkulatu hobaria jasotzeko epean.

10. Nekazaritzako kooperatibek eta lurren baterako ustiapenerako kooperatibek hobaria aplika dezakete landa ondasunen kuotetan, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauak ezartzen duenarekin bat etorriz.

11. Zergaren kuota osoaren ehuneko 99ko hobarirako eskubidea izango dute, 3 urteko aldi berriztagarrian, etxebizitzarako erabilera baino ez duten higiezinak, baldin eta subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza badira eta bertan bizi diren familia unitateko kide guztien errentak ez baditu gainditzen zenbateko hauek:

a) Urtean 10.296,00 euro, bakarra bada etxebizitzan bizi eta familia unitatea osatzen duen pertsona.

b) Urtean 15.444,00 euro, bi badira etxebizitzan bizi edo familia unitatea osatzen duten pertsonak.

c) Urtean 21.000,00 euro, bi baino gehiago badira etxebizitzan bizi edo familia unitatea osatzen duten pertsonak.

Hobari honetaz gozatzeko ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboek eta familia unitatea osatzen duten edo etxebizitzan bizi diren pertsonak ez edukitzea etxebizitza erabilera hutseko beste higiezinik Euskal Autonomia Erkidegoan. Hobari hori subjektu pasiboak eskatu ondoren emango da, eta eskaera hori egin zeneko urtearen hurrengotik aurrera izango da indarrean.

Hobaria eman ala ez erabakitzeko, eskaera aurkeztu aurreko ekitaldian izandako diru sarrerak izango dira kontuan, eta ez da berriz ere kalkulatu hobaria jasotzeko epean. Idatz zati honetan ezarritakorako:

a) Errenta da zerga oinarria ken konpentsazio pentsioen eta mantenerako urterokoen murrizketa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 69. artikuluan jasotzen duena. Errenta zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, errenta hori egiaztatzeko balio duen beste edozein informazio. Familia unitatea: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 98. artikuluan definitzen duena da.

12. Zerga honen kuota osoaren ehuneko 10eko hobaria ezartzen da, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak arautzen duen "Etxebizitza Hutsen Programa"ren baitan lagatzen diren ondasun higiezinatarako. Interesdunak aldez aurretik eskatuta emango da, eta lagapenaren ziurtagiria erantsi beharko du.

13. Etxebizitza gisa erabiltzeko diren ondasun higiezinak eta beste erabilera batzuetarako diren higiezinak batez ere etxebizitza gisa erabiltzeko erabilera mistoko eraikinetan badaude, eta horietan eguzki energia edo bestelako energia berriztagarriak autokontsumorako (berokuntza eta elektrizitatea) aprobetxatzeko sistemaren bat instalatuta badute, hobaria izango dute (zerga kuota osoa eskaera egin eta hurrengo hiru zergaldietan).

Hobari hori izateko, ezinbestekoa izango da hiru urte igaro ez izana instalazioa jarri zenetik eskaera egin zenera arte.

Subjektu pasiboak pertsona juridikoak badira, hobaria ehuneko 10ekoa izango da. Subjektu pasiboak pertsona fisikoak badira, familia unitatearen diru sarrerak eta kideak zenbat diren, haxe aplikatuko dira 3. eranskinetako taulak, eta horren emaitza izango da hobariaren ehunekoa. Hobaria eman ala ez erabakitzeko, eskaera aurkeztu aurreko ekitaldian izandako diru sarrerak izango dira kontuan, eta ez da berriz ere kalkulatu hobaria jasotzeko epean. Idatz zati honetan ezarritakorako:

a) Errenta da zerga oinarria ken konpentsazio pentsioen eta mantenerako urterokoen murrizketa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 69. artikuluan jasotzen duena. Errenta zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, errenta hori egiaztatzeko balio duen beste edozein informazio.

b) Familia unitatea: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 98. artikuluan definitzen duena da.

Baldintza bat egongo da hobari hori aplikatzeko: beroa sortzeko instalazioek dagokion Administrazioaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistemak izatea.

Udal zerbitzuek, aldez aurretik, egiaztatuko dute instalazioak egokiak direla eta ondo funtzionatzen dutela. Eguzki energiaren bestelako energia berriztagarrien kasuan, egiaztatu egin beharko da erregai fosiletan oinarritutako egungo berogailu sistemak ordezkatzeko dituztela.

Hobaria emateko, ezinbestekoa izango da egiaztatzea beharrezko udal lizentzia eskuratu dela.

Eguzki energia aprobetxatzeko sistema hauek nahitaez instalatu behar badira arloko beraiazko arautegiaren arabera, hobari hau ez da aplikatuko.

Hobari honek erregu izaera izango du eta, hala badagokio, eskatzen den zergaldiaren hurrengotik aurrera izango ditu ondorioak.

14. Artikulu honetan ezarritako hobariak bateraezinak izango dira elkarren artean. Hobari bat baino gehiago izateko baldintzak betez gero, subjektu pasiboari onurarik handiena eragingo diona baino ez da aplikatuko, eta hobariaren ehunekoa berdina izanez gero, gehien irauten duena.

## VIII. SORTZAPENA

### 18. artikulua

1. Urtean urteko urtarrilaren 1ean sortzen da zerga.

2. Zergapeko ondasunetan sortutako aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoek, aldaketa horiek gertatu ondorengo zergaldian izango dituzte ondorioak, eta horretarako ez da ezinbestekoa izango administrazio egintzak jakinaraztea.

## IX ZERGAREN KUDEAKETA

### 19. artikulua

Urtero udalerriko errolda egingo da Zerga kudeatzeko. Bertan ondasun higiezinak, subjektu pasiboak eta katastroko balioen zentsuak egingo dira, landa lurrekoak eta hiri lurrekoak bereiztuta. Errolda hori udaletxean egongo da jendaurrean.



**20. artikulua**

1. Subjektu pasiboek aitorten hauek egin beharko dituzte udal administrazioan, hogeita hamar eguneko epean:

a) Eraikuntza berrien kasuan, dagozkien alta emate aitortenak egin beharko dituzte.

b) Zerga honen kargapean dagoen ondasun eskualdaketa bat gertatzen denean, eskuratzai-leak alta aitortena aurkeztu behar du eskualdaketa eragiten duen agiriarekin batera; eskual-datzaileak, berriz, baja aitortena aurkeztu behar du, eta bertan datu hauek adierazi behar ditu: eskuratzai-learen izena eta helbidea, ondasunen mugak eta kokalekua, eskualdaketa data eta kontzeptua.

Eskualdaketa "mortis causa" egintzaren batek eragiten badu, dagozkion epea Oinordetzen gaineko Zerga likidatzen den egunetik hasiko da zenbatzen, eta oinordekoak alta eta baja aitortenak egin beharko ditu.

c) Kargapeko ondasunen aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoen ondorioz gertatzen diren aldakuntzak.

**21. artikulua**

Higiezinaren katastroen berrikuspenen ondorioz, katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzeko egiten diren eragiketen ondorioz, ikuskapen jardueren ondorioz eta altak eta berriemateak direla eta katastro horietan datuak sartzen dira edo dauden datuak kentzen edo aldatzen dira. Bada, horiek guztiak administrazio egintzak izango dira eta Zergaren erroldaren aldaketa ekarriko dute. Ildo beretik, erroldan higiezinaren katastroetan dauden datuekin lotutako aldaketarik egin behar izanez gero, higiezinaren katastroetan alde aurretik aldaketa bera egin beharko da nahitaez.

**22. artikulua**

1. Udalak du zerga ordainarazi, kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmena, borondatezko aldiaren zein premiamendu bidean, baina hori ez da eragozpen izango ondoko 3. zenbakian ezarritakoa betetzeko.

2. Zehazki, udalari dagokio alden eta bajen izapideak egitea eta likidatzea, erroldak jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebatzea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, ordainagiriak taxutzea eta, azkenik, zerga honekin lotutakoetan zergadunari laguntza eta informazioa ematea.

3. Foru Aldundiari ez besteri dagokio lurzoruaren mugaketak eta balio txostenak egitea eta onartzea, baita mugaketa horiek eta katastro balioak finkatzea, berrikustea eta aldatzea ere; era berean, katastroei eta zerga erroldari dagozkien prestakuntza, berrikuspena, kontserbazioa eta gainerako funtzioak ere berari dagozkio.

Udalak katastroa prestatzen eta artatzen lagunduko dio Foru Aldundiari.

Era berean, Foru Aldundiari dagokio zergaren katastro ikuskaritza.

**23. artikulua**

Lurzoruaren mugaketa onartzeko egintzen, balio txostenaren eta katastro balioen aurka errekurtsioak eta erreklamazioak aurkezteko, Zergei buruzko Foru Arauan xedatutakoari jarraitu beharko zaio, eta Foru Aldundiak izango du eskumena errekurtsio eta erreklamazio horiek ebatzeko. Horrelako errekurtsioa edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

**24. artikulua**

1. Arabako Foru Aldundiak egingo du errolda, eta udalari bidaliko dio.

2. Udalak errolda jaso eta gero, jendaurrean jarriko du 15 egunez, zergadunek azter dezaten, eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

3. Udalak administrazio batzar horietako lehendakariari bi egun lehenago, gutxienez, jakinaraziko die noiz jarriko diren jendaurrean, horiek ere herritarrei jakinaraz diezaieten ohiko bideak erabilia.

**25. artikulua**

1. Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztagiria, hark onets dezan.

2. Onartu eta gero, Foru Aldundiak egingo ditu bakoitzari dagozkion ordainagiriak, eta udalari bidaliko dizkio, azken horrek diru bilketari ekin diezaion.

**X. XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Zerga ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera, baliorik gabe geratuko da udalbatzak 2002ko martxoaren 26ko bilkuran hartutako erabakia, biztanleen kokapen berezietan dauden higieinei hobariak aplikatzeko arauari buruzkoa.

**XI. XEDAPEN IRAGANKORRA**

1. Urbanizazio eta eraikitze obrak zerga hau ezarri aurretik hasi baziren, hau da, 1992ko ekitaldia baino lehen, ordenantza honen 17. artikuluan ezarritako hobaria gozatzeko epea murriztu egingo da, obrak hasi zirenetik zerga hau ezarri zen arte igarotako urte kopuruan.

2. Zerga hori indarrean sartu zenean hobariren bat zutenek lurraldeko landa eta abere kontribuzioan eta hiri lurren kontribuzioan, hobari berak izango dituzte ondasun higiezinaren gaineko zergan, iraungi arte, eta hobaria jasotzeko epe mugarik ez badago, iraungita egongo da 1992ko abenduaren 31tik aurrera.

**XII. AZKEN XEDAPENA**

2 zenbakiko udal zerga ordenantza, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena, eta bere eranskinak 2021eko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean.”

**1. ERANSKINA**

Karga tasa:

- a) Hiri ondasunak: ehuneko 0,276
- b) Landa ondasunak: ehuneko 0,540
- c) Ezaugarri berezietako ondasunak: ehuneko 0,677

## 2. ERANSKINA

1 taula

FAMILIAKIDEAK	T-0 (EUROTAN)	T-1 (EUROTAN)	T-2 (EUROTAN)	T-3 (EUROTAN)
1	0,00 — 6.285,93	6.285,94 — 9.025,55	9.025,56 — 12.436,09	12.436,10 — 16.006,38
2	0,00 — 8.793,92	8.793,93 — 12.436,09	12.436,10 — 15.878,57	15.878,58 — 19.456,85
3	0,00 — 10.966,44	10.966,45 — 14.672,52	14.672,53 — 18.083,05	18.083,06 — 21.733,21
4	0,00 — 12.811,49	12.811,50 — 16.589,44	16.589,45 — 19.992,00	19.992,01 — 23.650,13
5	0,00 — 14.353,02	14.353,03 — 18.170,91	18.170,92 — 21.573,46	21.573,47 — 25.231,61
6	0,00 — 15.551,10	15.551,11 — 19.376,99	19.377,00 — 22.779,53	22.779,54 — 26.477,62
7	0,00 — 16.781,14	16.781,15 — 20.662,93	20.662,94 — 24.065,48	24.065,49 — 27.723,61
8 edo gehiago	0,00 — 17.987,21	17.987,22 — 21.869,00	21.869,01 — 25.271,54	25.271,55 — 28.969,62

FAMILIAKIDEAK	T-4 (EUROTAN)	T-5 (EUROTAN)	T-6 (EUROTAN)	T-7 (EUROTAN)
1	16.006,39 — 19.456,85	19.456,86 — 22.899,34	22.899,35 — 26.349,82	26.349,83 — 29.800,30
2	19.456,86 — 22.899,34	22.899,35 — 26.349,82	26.349,83 — 29.800,30	29.800,31 — 33.250,78
3	21.733,22 — 25.191,67	25.191,68 — 28.634,17	28.634,18 — 32.084,64	32.084,65 — 35.487,19
4	23.650,14 — 27.100,62	27.100,63 — 30.551,10	30.551,11 — 33.993,58	33.993,59 — 37.444,07
5	25.231,62 — 28.674,11	28.674,12 — 32.124,58	32.124,59 — 35.575,04	35.575,05 — 39.025,54
6	26.477,63 — 29.920,10	29.920,11 — 33.370,59	33.370,60 — 36.821,06	36.821,07 — 40.271,53
7	27.723,62 — 31.174,11	31.174,12 — 34.616,59	34.616,60 — 38.067,06	38.067,07 — 41.517,54
8 edo gehiago	28.969,63 — 32.420,11	32.420,12 — 35.862,60	35.862,61 — 39.321,05	39.321,06 — 42.763,55

FAMILIAKIDEAK	T-8 (EUROTAN)	T-9 (EUROTAN)	T-10 (EUROTAN)
1	29.800,31 — 33.250,78	33.250,79 — 36.693,27	Hau baino gehiago: 36693,27
2	33.250,79 — 36.693,27	36.693,28 — 40.151,72	Hau baino gehiago: 40151,72
3	35.487,20 — 38.945,66	38.945,67 — 42.388,15	Hau baino gehiago: 42388,15
4	37.444,08 — 40.886,55	40.886,56 — 44.345,02	Hau baino gehiago: 44345,02
5	39.025,55 — 42.507,96	42.507,97 — 45.926,49	Hau baino gehiago: 45926,49
6	40.271,54 — 43.714,04	43.714,05 — 47.036,46	Hau baino gehiago: 47036,46
7	41.517,55 — 44.960,03	44.960,04 — 48.418,52	Hau baino gehiago: 48418,52
8 edo gehiago	42.763,56 — 46.206,04	46.206,05 — 49.664,51	Hau baino gehiago: 49664,51

Taula honen ondorioetarako, honela zehaztuko da errenta:

Familiaren errenta = zerga oinarri erregularra - kuota likidoa (aurkeztutako azken zerga aitorpena hartuko da aintzat).

Familia unitateko kideen kopurua = gurasoak edo tutoreak gehi emantzipatu gabeko seme-alabak.

2. taula

<b>FAMILIAKO ERRENTAREN TARTEA</b>	<b>KUOTAREN HOBARIA EHUNekoETAN</b>
T-0	55
T-1	50
T-2	45
T-3	40
T-4	35
T-5	30
T-6	25
T-7	20
T-8	15
T-9	10
T-10	0

**3. ERANSKINA**

<b>ERRENTA TARTEA</b>	<b>KUOTAREN HOBARIA EHUNekoETAN</b>
0	50
1	46
2	42
3	38
4	34
5	30
6	26
7	22
8	18
9	14
10	10

Amurrio, 2020ko azaroaren 18a

*Alkatea*

**JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA**